

Familia-bazkaria

- Begira! Emakume hau nire izeba da, Bego; Ainhoaren ama da.
- A, bai, Ainhoa, suhiltzailea; hor behean dago, makurtuta. Eta gizon hau Ainhoaren aita da, ezta?
- Ez, hori ez da Ainhoaren aita. Ainhoaren aita Juanan da, nire osaba: nire amaren, Piliren anaia.
- Eta nor da gizon hori?
- Gizon hori izebaren senarra da, Miguel. Izeba eta osaba bananduta daude.
- Nor dira gazte horiek?
- Mutila nire lehengusua da, Juanjo, eta neska haren emaztegaia da, Lurdes.
- Eta neska horiek?
- Neska hori Nahia da, nire lehengusina. Ondoan, Irati dago, Nahiaren bikotekidea.
- Ume horiek Begoren bilobak dira?
- Bai, haren bilobak dira, Eider eta Antton bikiak, Nahia eta Iratiren seme-alabak.